



KERIK GABEKO GAZTEAK 2018-2019

Lehiaketarako oinarriak

ARGAZKI EDO ARGAZKI-KONPOSIZIO BAT SORTZEKO LEHIAKETA

Kerik Gabeko Gazteak (KGG) ekimenaren barruan, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoko Zuzendaritzak argazki-lehiaketa bat antolatu du. Izena emateko azken eguna **2018ko abenduaren 21a da**.

1. XEDEA

Lehiaketan, argazki edo argazki-konposizio bat sortu behar da; hurrengo atalean aipatzen den gaiarekin lotuta egon behar du, eta gazte jendea izan behar du jomuga

2. GAIA

2018-2019 ikasturterako gaia **"Ez erretzeko arrazoiak"** izango da. Norberak sortutako lanak izan behar dute, editatuta edo ez, eta testu edo eslogan motz bat gehi daiteke, gai hauei buruz: bizi-ohitura osasungarriak, ez erretzearen abantailak (ekonomiarentzat, osasunarentzat, harremanetarako) eta abar.

3. PARTE-HARTZAILEAK

Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako **LHko 6. eta DBHko 1. eta 2.** gelek parte har dezakete.

4. LANEN EZAUGARRIAK

Irudiek bigarren oinarrian azaldutako gaiari buruzkoak izan behar dute, eta betekizun hauek konplitu beharko dituzte:

- Originalak izan behar dute. Berariaz debekatzen da autoreek egin ez dituzten **argazkiak edo argazki-konposizioak** erabiltzea.
- **Marka komertzialen, benetako karaktereen edo komikien izenak nahiz marrazkiak dituztenak ezin dira lehiatu. Iraingarriak, bortitzak edo mezu sexistak erabiltzen dituztenek ezin dute lehiatu.**
- **Testua gehituz gero, gomendagarria da gaixotasun, heriotza, ezintasun edo antzeko alderdiak islatzen ez dituzten mezu positiboak erabiltzea.**
- Gela bakoitzak **bost** argazki edo argazki-konposizio aurkez ditzake, gehienez.



- Aurkeztutako lanak editatzeko, edizio grafikorako edozein programa erabil daitezke, eta beharrezkoa da jpg / jpeg formatuan aurkeztea.

5. LEHIAKETAREN GARAPENA

Lehiaketan parte hartzen duten ikastetxeek lanak **2019ko apirilaren 12ra arte bidali beharko dituzte (egun hori barne)**, helbide honetara:

kerik-gabeko-gazteak@euskadi.eus

6. LANEN BALIOESPENA

Epaimahaiak faktore hauek izango ditu kontuan:

- Obrak ekimenaren xedea eta gaia adieraztea.
- Transmititzen den mezua originala izatea.
- Edukiak eta baliabide espresiboak eta artistikoak sormenezkoak eta originalak izatea.
- Kritikoak izatea tabakoaren interesekin eta industriarekin.
- Irudiak, eta —hala badagokio— testuak gazte jendearentzat egokituta egotea.

Epaimahaiak sari guztiak ez emateko eskubidea du, bai eta lehiaketan inor ez saritzekoa ere.

Epaimahaiaren erabakia zehazten den moduan jakinaraziko zaio gela irabazleari. Erabakiaren berri emango zaie ikastetxeei.

7. BUKAERA

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri guztiak onartu beharra dakar.

Aurkezten diren lan guztiak KGGren jabetzakoak izango dira; beraz, KGGk lan horiek zabal ditzake, egokituz jotzen dituen bide eta euskarriak baliatuta, ekimena hedatzeari dagokionez.

Sariak jendaurreko ekitaldi batean emango dira. Ekitaldiaren berri emango zaie ikastetxeei.

8. SARIAK

Aurkeztutako lanaren arabera, Heziketa-ziklo bakoitzeko eta lurralde historiko bakoitzeko sari bat emango da.



Sariak maiatzaren **31ren asteen** banatuko dira, Kerik Gabeko Astearekin bat egiteko.

Sari hauek izango dira:

- Jarduera ludiko bat gela irabazle osoarentzat.
- Parte hartzen duten ikasle guztiek jasoko dute oparia, Euskal Autonomia Erkidegoan saritu duten logoa duela.

Saria onartzeak berekin dakar Osasun Sailari lagatzea lana ustiatzeko eta edozein euskarri edo baliabidetan erreproduzitzeko eskubideak, baita jabetza intelektualaren eskubidea lagatzea ere, eskusibotasunez eta mugagabe, hain zuzen.